Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa

Mancomunidad de la Merindad de Durango

# TORNOSOLO MASTER TRINKETEAN / eskuz binaka /
MASTER TORNOSOLO DE TRINQUETE / Mano Parejas /

**ABENDUAREN 17an, 17'00etan ABADIÑO-n / 17 de diciembre, 17'00h. en ABADIÑO**

**LARUNBATA / SABADO**

**JOKAMOLDEA / Modalidad :**

**Eskuz Banaka Etorkizunekoak / Mano Individual Promesas (1º)**

**Eskuz Binaka Nagusiak 1.maila / Mano Parejas Senior Primera (2º)**

1. **PRIETO, 16; BARANDIARAN, 40 (FINAL)**
2. **WALTARY-A.MARTIN, 19; R.URIARTE-ANTXIA, 40 (FINAL)**

## R.URIARTE-ANTXIA, AHULEZI BAKO BIKOA

### Trinketeko izarrik distiratsuena den Waltary kubatarrak ere, Martin II-arekin, ezin izan zuen beraiekin

Ezusteko pozgarri bizi izan zuen abadiñar pilotazaleak Abadiñon jokatutako Tornosolo Master finalean. Etxeko bikoteak (R.Uriarte-Antxia) txapelak lortu zituen Waltary-Martin II bikote faboritoa menderatuta (40-19). Kubatarrak lehen aldiz garaipenik gabe alde egin behar izan zuen Abadiñotik.

Iaz, txapelketa berean, lana latz eginda lortu zuen garaipena bikote berdinaren aurka (37-40) –Ugarte-rekin jokatu zuen orduan- baina aurten ezin izan du txapela soineratu. Egiari zor, Ander Martin ez zen fin aritu eta abadiñarren joku biziak mine gin zion. Dena den, kubatarrak ere ez zuen ezer egin. Berari tokatzen zitzaion finaleko sama soineratzea baina pare bat alditan saiatu eta aurkariek eutsi ziotenean, galdutzat eman zuen lehia. Teilatupean ezkutatu zen bigarren zatian eta hortik jasandako porrot nabarmena.

Lehen finalean, gazteen artean, Barandiaran gipuzkoarra nagusi. Mungiako Prieto-k ez zuen bere benetako maila eman baina aurkariak asko behartu zuelako izan zen gehienbat. Halere, aurreko egunean Bizkaiko txapelketako finalean Ziarrusta menderatzeko eginiko ekinak ez zion mesede egin.

---

## R.URIARTE-ANTXIA, UNA PAREJA SIN FISURAS

### Ni el mismísimo Waltary, en compañía de Martin II, pudo con los locales

Con sorpresa concluyó ayer en el Tornosolo de Abadiño el Master de Mano Parejas. Se medían R.Uriarte-Antxia y Waltary-Martin II en una final con 'momios' favorables al cubano más universal de la Pelota Vasca pero, por vez primera en la localidad vizcaína, Waltary Alonso no pudo superar el reto propuesto.

La temporada pasada, la misma dupla estuvo a punto de derrotarle (37-40) –Waltary jugó con Ugarte- tras una final de infarto. Esta vez la pareja de Abadiño, nuevamente con el trinquete repleto, si consiguió su objetivo. Además, lo hizo con rotundidad (40-19). Martin II no tuvo su tarde y acusó el ritmo de la final pero tampoco la estrella cubana estuvo a la altura. Hasta mediada la contienda las ventajas locales no fueron demasiado amplias y se preveía la reacción final de Waltary, esa en la que mete la directa y se lleva siempre el gato al agua, pero esa reacción nunca llegó y el partido se rompió con celeridad para R.Uriarte-Antxia.

Waltary lo intentó en un par de tantos que imprimió su habitual potencia al pelotazo pero se topó con la defensa de una inexpugnable dupla y cedió. En adelante, se escondió cayendo con estrépito.

En el primero, exhibición de Barandiarán ante un Prieto que no dio su talla en parte obligado por el juego rival pero también por el desgaste que la víspera le supuso el lograr la txapela vizcaína ante Ziarrusta.